

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak sektore ekologikoa, sormen-industria eta berrikuntza sustatzeko milioi bat euro inbertituko du

*Hiru proiektu horiek Interreg proiektu europarreko programaren finantzaketa lortu dute*

Ostirala, 2016.eko maiatzak 27

Nafarroako Gobernuak, Sodena sozietate publikoak eta ADItech teknologia-zentron sareak milioi bat eurotik gora inbertituko dute datozen urteotan hiru proiektu garatzeko; proiektu horiek berrikuntza, kultura eta sormeneko ETEen sorrera eta sektore ekologikoaren hazkundera sustatzea dute xede.

Hiru ekimen horiek Interreg Europako eskualde arteko lankidetzaren programaren finantzaketari esker egingo dira. Proiektuak bazkide nafarrak dituzten bakarrak ziren, 2014-2020 epeko lehen deialdirako hautagaiak ziren eta hirurak hautatu dituzte. Guztira aurkeztutako 261 proposamenetatik, 64 onartu dira. Deialdi honen aurrekontua 107,5 milioi euro zen.

Nafarroan egindako inbertsioetik, 500.000 euro (% 85 Interreg Europe-k finantzatua), Nafarroako sektore ekologikoan ekintza-plan bat egiteko erabiliko dira; Sodena buru duen proiektua da, eta bertan Landa Garapeneko Departamentuak eta kide diren Europako beste 7 eskualdek parte hartzen dute, haien artean Akitaniak. Garapenerako lankidetzan ekoizpen ekologikoaren sektoreko funtsezko bazkideak ditu (IFOAM, FiBL eta CIHEAM). 2 milioi euro inguruko aurrekontua du.

2020an amaituko den proiektuaren izena 'SME Organics' da, eta haren helburua, alde batetik, sektore ekologikoko ETEen lehiakortasuna hobetzea da, eta bestetik, produktu nahiz ondasunak hazteko gaitasuna indartzea eskualdeko merkatuetan, estatukoetan eta nazioartekoetan. Horretarako, ekintza plan bat egingo da, eta eskualdeko balio ekologikoko kate-maila guztiak aintzat hartuko ditu (politikak, finantzaketa, eragileak...). Lehenik eta behin, diagnostiko bat egingo da, beste zenbait eskualderekin esperientziak trukatzeko dira (jardunbide egokiak, sinergiak...) eta, azkenik, estrategia proposatuko da.



Landa Garapeneko Departamentuak eta Sodena plan bat prestatuko dute ETEen lehiakortasuna hobetzeko sektore ekologikoan.

## **Inkreeze eta berrikuntza**

Eragin ekonomikoko bigarren proiektua [`Inkreeze`](#) da, eta Nafarroako Gobernuak eta ADItech korporazio teknologikoak parte hartzen dute bertan, Europako beste sei eskualderekin batera. Berrikuntzako estrategiak eta ekintzak hobetzea du xede, Batasuneko lehiakortasunaren handitzean inplikaturakoak. Aditech-ek 265.500 euro inbertituko du, eta Gobernuak, 74.000 inguru, Interreg-en % 80ko batez besteko finantzaketarekin.

Datozen bost urteotan egingo da, eta berrikuntzako emaitzak kapitalizatzeko ekintza plan bat egiten utziko du, existitzen diren neurriak eraginkorragoak izaten eta gobernantza-eredu eraginkorragoak hartzen. 1,9 milioi euroko aurrekontua du, % 83 Europako finantzaketarekin.

## **Sormen eta kulturako ETEak**

'CRE-HUB' proiektua 8 bazkideren partzuergo batek osatzen du, eta Italiako Basilicatako eskualdea du buru. Haren helburua Kultura eta Sormeneko Industriaren (CCI, ingeleseko siglak) sektoreko ETE berrien sorrera eta garapena babestea da, sektore honi laguntza emateko politiketan ahalmen nahiz esperientzia ezberdina duten eskualdeen arteko lankidetzaren bidez. 1,48 milioi aurrekontua du, eta Interreg Europe-ren % 85eko finantzaketa. Nafarroan, Nafarroako Gobernuak 165.455 euro inbertituko du, lankidetzaprogramaren % 85.

[Interreg Europe programak](#) bazkideen arteko esperientzien trukea sustatzen du Batasunaren bidez, eta jardunbide egokiak identifikatu eta zabaltzea programa eragileei transferitzeko asmoz, nagusiki. EGEF funtsekin finantzatuta dago, eta proiektuetako sustatzaileen kofinantzaketa eskatzen du.